



GASTEIZKO LEGEBILTZARRARI

Adolfo Muñoz Sanzek, **ELA SINDIKATUAREN** izenean eta haren ordezkari gisa, jakinarazpenak jasotzeko helbide honekin: Barrainkua, 13, 48009 Bilbo, eta

Ainhoa Etxaide Amorrortuk, **LAB SINDIKATUAREN** izenean eta haren ordezkari gisa, jakinarazpenak jasotzeko helbide honekin: Pokopandegi Bidea, 9-2 20018 Donostia, idatzi hau aurkezten dute:

ELA eta **LAB** sindikatuek **MOZIO** bat aurkezten dute Ganberaren osoko bilkuran eztabaidatzeko:

1.- Eusko Legebiltzarrak bere konpromisoa adierazten du askatasun sindikaleko oinarrizko eskubidearekiko, hau jendarte demokratiko bat definitzen duten funtsezko osagai izanik; askatasun horren ikusmolde zabalaz ari gara, eta horren baitan sartzen da sindikatuei berez dagozkien interesak defenditzeko zein bitarteko erabiliko dituzten erabakitzeke zor zaien eskubidea.

2.- Eusko Legebiltzarrak gaitzetsi egiten du Confebasken asmoa, hots, Erakunde Sindikal eta Enpresarialen Estatutuen Gordailuari buruzko Errege-Dekretuan sartzea sindikatuaren izaera kentzeko prozedura.

Hori guztia jarraian azaldu eta justifikatzen denagatik:

I.- LAB sindikatuak egiaztatu du espainiar Gobernuan tramitatzen ari dela Sindikatuen eta Enpresa-erakundearen Estatutuen Gordailuari buruzko Errege Dekretuaren Proiektua.

Hitzaurrean, proiektuak dio bere helburu nagusia dela apirilaren 22ko 873/1977 Errege Dekretuan jasotzen den araudia ordezkatzeko, zaharkituta dagoelako, hauxe egiteko:

- Administrazio elektronikoa ezartzeko sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuen gordailuaren prozedura administratibo osoan.

- Gordailurako eskariak eta aurkeztu behar den dokumentazioa arautzeko.

- Lurralde-esparruko gordailuak sortzeko autonomia erkidegoetan, eta eremu estataleko sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuen base zentral bat sortzeko, horien kudeaketa Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioari baitagokio.

Hain zuzen ere, proiektuaren 1. artikulua dio bere helburua hauxe dela:

“1. art.- Helburua eta aplikazio-eremua.

Errege-dekretu honen helburua da sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuen gordailuak eta haien bitarteko elektronikoen bidezko funtzionamendua arautzea, eta baita ondorengo artikuluan aurreikusitako gainerako egintzak bitarte elektronikoen bidez gordetzeko prozedura ere arautzea”.

II.- Proiektu fasean dagoen arauaren edukian ikusten denez, eta bere hitzaurrean espresuki adierazten den bezala, garatzen den bakarra da *“Askatasun Sindikalaren 11/1985 Lege Organikoaren 4. artikuluan ezarritakoa, eta sindikatuak eratzeko eskubidearen araudiari buruzko 19/1977 Legearen 3. artikulua; horrekin batera, sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuen gordailuak arautzen dira eta administrazio elektronikora egokitzen dira”.* Hau da, dekretua hori garatzera mugatzen da.

Hori guztia aurrean dugun arau-figuragatik, hau da, garatzen duen legearen mende dagoen araudia dugulako aurrez aurre. Era horretan, araudiek erabat debekatuta dute eskubide eta betebeharrak berriak eranstea, edo legez araututakoa murriztea; izan ere, esan dugun bezala, araudiek garatu egiten dute, baina berez ez dira legegileak. Hori horrela da orokorrean, eta askoz ere intentsitate handiagoz alor partikularrean, kasu honetan bezala, zeren konstituzioak aitortzen duen eskubide bat ukitzen du, alegia, askatasun sindikala, izaera organikoko Lege baten bidez arautua.

III.- Aurreproiektuak aurreikusten du, bere tramitazioan, ordezkari handiena duten sindikatuak eta enpresa-erakundeak kontsultatzea, eta baita Autonomia Erkidegoak ere. Ez dakigu tramite hori jadanik egin ote den EAEn.

ELA eta LAB sindikatuek ikusi ahal izan dute Confebasken honako dokumentua: *“Alegaciones de Confebask al Proyecto de RD sobre Depósito de Estatutos de las Organizaciones Sindicales y Empresariales”.*

IV.- Confebasken alegazioak baloratzeari begira, deigarria da araudi proiektuak ondoren aipatzen dugun betekizuna exijitzea estatutuek beren erregistrarako bete behar dituzten betekizunean artean:

5.2.b.6. art: “Sindikatuen zein enpresa-erakundeen helburuei dagokienez, horiek identifikatzen dituzten berezko lan-helburuak sartu behar dira, jarduteko bide arruntak honako hauek

izanik: laneko negoziazio kolektiboa, laneko gatazka kolektiboak planteatzea, elkarrizketa soziala, eta administrazio publikoen erakundeetan parte-hartze instituzionala izatea.

Halaber, estatuek barne hartu ahal izango dituzte eragileek egokitzat jotzen ditzuten beste edozein xedapen eta konklusio zilegi, betiere legeen kontrakoak ez badira eta sindikatua edo lanbide-elkartea konfiguratzeko duten printzipioei aurre egiten ez badiete”.

Horrez gain, betekizun hori jadanik erregistratuta dauden erakunde sindikalei exijitu dakieke, beren estatutuetan betetzen ez dela kontsideratzen bada. Horretarako, “*eskumena duen bulego publikoak haien egokitzapena eskatuko du*”, eta egokitzapen hori egiten ez bada sindikatuari baja emango zaio eta “*eskumena duen gordailu edo erregistrora bideratuko da*” (4. Xedapen Gehigarria).

V.- Erabat gaitzestekoa da Confebask patronalak betekizun honekin egin nahi duena, alegia, euskal gehiengo sindikala zigortzeko dituen desio zoroen eraikuntza bat, kalitate juridiko edo demokratikoaren gutxieneko estandarra inola ere gainditu gabe.

VI.- CONFEBASKek hauxe dio, espainiar Gobernura zuzenduta:

“Es una regulación que consideramos especialmente oportuna” pero “consideramos que el Reglamento debiera ir mas alla” y “prever también los mecanismos para que si de facto las organizaciones no cumplen con estos fines solo formalmente incorporados a sus estatutos, igualmente puedan ser expurgadas (...)”.

Horren ostean, patronalak bere jarrera zehazten dio espainiar gobernuari:

“En este sentido proponemos que se adicione un artículo que permita que, de oficio o a instancia de parte pueda promoverse esa “baja” en la Oficina cuando se constate y pruebe la distorsión entre lo declarado en los estatutos y lo ejercido en la realidad”.

Bere proposamenen larritasunaz Confebask bera konturatzen da (legearen kontra joatea izango litzatekeela ere onartuz):

“Somos conscientes de lo drástico y delicado de lo que en ambos casos se plantean, dada las consecuencias derivadas: que una organización sindical o empresarial deja de serlo”.

Horregatik, prest legoke onartzeko (1), bihotz-zabaltasun handiarekin, erabaki hori “ebazpen judizialez soilik hartu ahal izatea, dela ofizioz dela alderdi interesatu batek hala eskatuta”.

Hori egitean, badirudi patronalak ahazten duela Zuzenbide Estatu demokratiko batean askatasun sindikalak hauxe hartzen duela barne (beste eskumen batzuen artean): “*sindikatuak sortzeko eskubidea, aurretiko baimenik gabe, eta baita bertan behera uzteko edo desegiteko ere, prozedura demokratikoen bitartez*”, eta “*bertan behera ez geratzeko edo ez desegiteko eskubidea, Aginte judizialaren ebazpen irmoaren bidez ez bada, legeen hauste larria oinarritzat hartuta*” (Askatasun Sindikalaren Lege Organikoaren 2.1a. eta 2.2.c. art.).

VII.- Confebaskek, espainiar Gobernuari helarazitako adierazpen horiez gain, ez du inolako erreparorik bere proposamenaren helburua zein den adierazteko: euskal gehiengo sindikala: LAB eta ELA sindikatuak.

“Confebaski gai hau bereziki interesatzen zaiola” adierazi ondoren, aipatutako sindikatuek gauzatu omen dituzten jokabide zigorgarri hauek aipatzen ditu:

- *“se nieguen a practicar el diálogo social o lleven muchos años ausentes de los órganos y consejos de participación institucional”*

- *“Es que, por un lado, han entrado en la dinámica de boicotear (con éxito) que exista y se practique por el resto de agentes dicho diálogo social”.*

- *“y por otro, dedican buena parte de sus esfuerzos a cuestiones ajenas a los fines que les son propios, como todo lo referido al tren de alta velocidad, o que solo muy colateralmente tienen que ver con la acción sindical (iniciativas legislativas sobre cláusulas sociales o en materia fiscal”.*

Eta, horretarako, badirudi Confebaskek jadanik eman duela bere “epaia”, eta horrela jakinarazi dio espainiar gobernuari:

“Por supuesto que dichas organizaciones pueden libremente dedicarse a lo que estimen mas oportuno, pero no deberían, envestidas de lo que realmente no son, poder condicionar e incluso anular la actividad propia de las organizaciones empresariales y sindicales que lo son realmente”.

VIII.- Confebasken adierazpenak berez deskalifikatzen badira ere, bai antidemokratikoak direlako eta bai haren desioak oraingo legezko erregulazioaren aukeretatik kanpo daudelako, haien larritasunak beharrezko bihurtzen du Legebiltzar honek bere iritzia ematea.

Gaur egun, Confebask da aitortza instituzionala duen patronala eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako enpresari-klasearen ordezkari ofiziala (ordezkaritzarik egiaztatuta ez duen arren); beraz, Legebiltzar honek gaitzetsi behar ditu LAB eta ELAren aurka zuzendutako adierazpen antisindikal eta antidemokratikoak; izan ere, sindikatu horiek osatzen dute euskal langileek emandako gehiengo sindikala, eta Legebiltzar honek langile horiek ere ordezkatu behar ditu.

Horregatik guztiagatik, **EUSKO LEGEBILTZARRARI**

ESKATZEN DIOTE, egin beharreko tramiteak egin ondoren, hasieran azaldutako adierazpenak onar ditzala.

Gasteizen 2014ko azaroaren 28an

